

## 5.- BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALA

Gure produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko, aplikazio baten bidez egingo dugu, Android eta Apple gailuetan deskarga daitekeena edo Internet bidez sartu daitekeena. Bezeroek kontu bat sortu beharko dute aplikazioa erabiltzeko, dohain izango dena. Bezeroek egunaren arabera autoa jarri edo autoa behar duten aukera izango dute, baina hasieran ez dute zehaztu behar. Eta bidai bakoitzaren ostean, gidariak jasoko du dagokion ordainketa eta bidaiariak ordaindu beharko du, banku txartela aplikazioan sartuta edukita.

**Komunikazio-kanalak:** Bezeroekin aplikazioaren bidez komunikatuko gara. Gidari eta bidaiariak elkarren artean aplikazioaren barruan harremanetan jarriko dira. Agureak bezero kopuru handia direnez eta askok arazoak dituzte gailu elektronikoak erabiltzerako orduan, laguntza berezi bat eskainiko dugu: Alexa edo Siri moduko adimen artifiziala, ahots bidezko jarraibideak erabiliz, zer behar duten esango dute eta irtenbide egokia jasoko dute.

**Banaketa-kanalak:** Kanal laburrak erabiliko ditugu, bezeroarekin zuzenean kontaktuan egongo garenak, bitartekaririk gabe. Laguntza behar izanez gero, telefono bidezko deia ere eskainiko dugu. Baina batez ere, gidari eta bidaiariaren arteko kontaktua izango da nagusia.

**Salmenta-kanalak:** Zerbitzua online eskainiko da aplikazioaren bidez, aplikazioa deskargatuta edo Internet bidez sartuta. Salmenta osteko zerbitzua ere egongo da, hala nola telefono bidezko laguntza eta aplikazio barruko sistemak, bidaiariak edo gidariak arazorik izanez gero azkar konpontzeko.

Laburbilduz, gure bezeroekin harremanetan jartzeko eta gure balio-proposamena transmititzeko modu nagusia aplikazioa eta haren bidezko komunikazioa izango da, bidaiari zein gidariarentzat erraza eta zuzena, eta horrela gure zerbitzua modu eraginkorrean merkaturatuko dugu.